

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN HISTORIA

Datu orokorrak



Seihilekoa: **S1 eta S2**

Hizkuntza: **Euskara**

Formatua: **Online Nahieran**

Deskribapena



Ikasgai honek Mendebaldean sortu, mundu osora hedatu, eta agenda globala gidatzen duten zientzia eta teknologia ikuspegi historiko-filosofikotik aurkeztuko ditu. Haien izaera, sorrera, garapena eta egungo munduan daukaten tokia ulertzeko gakoak emango ditu, eta horien gaineko gogoeta kritikoa sustatu, gaur-geroa irudikatu, iragana ulertu eta gizakiaren gaitasun eta egitekoen gaineko hausnarketa bideratzeko.

Metodologia



- Ikasgaiak hainbat irakurketa eta dokumental izango ditu, eta horien ondorengo test eta hausnarketak (idatziz edota ahozkoak).
- Ibilbide osoan irakaslearen bideo-pilulak lagungarri, edukien jasoketa eta ulermenean zuzentzeko.
- Tutoretzak.

Edukiak



- **1. gaia: Modernitatea eta teknozientzia:**
 - Kosmologiara sarrera
 - Positibismotik postmaterialismora
 - Erromantizismo filosofiko-zientifikoa
- **2. gaia: Historia eta kultura**
 - Lorpenak eta tokia gure gizartean
 - Berrikuntza teknologikoa
 - Utopia eta distopia
- **3. gaia: Laugarren iraultza zientifikoa**
 - Adimen artifiziala eta digitalizazioa
 - Giza Zientziekin elkarrizketa
 - Gogoeta metafisikoak